

KOSTUEN EGITURA

Gure zerbitzuak herritarren eskura ipiniko dituen baliabideak, kalitatezkoak eta hauek beharrei egokitutakoak izango dira. Hau kontuan izanik, jarraian gure zerbitzuak edukiko dituen kostuan azaltzen dizkizuegu:

Lehenik eta behin aipatu beharra daukagu, gure bulegoa propioa izango dala, hau da, aldez aurretik taldekide batek duelako. Beraz, ez dugu gasturik edukiko lokala edo bulegoaren alokairuarekin. Bulego horretan, telefonoa, bi ordenagailu, wifi-a eta argi indarra edukitzea beharrezkoa daukagu gure zerbitzua eguneratuta edukitzeko eta bezeroari informazio guztia eskura ipintzeko.

Ondorioz, lehenengo hilabetean inbertsio handi bat egin beharko dugula kalkulatu dugu. Alde batetik, bi ordenagailu eskuratu beharko ditugu, beraz, biak batera, 700€ balioko dute. Kutxatilak berriz, 4474,80€ guztira. Honi atxikiturik, kutxatilak beharrezkoak edukiko dituzten sarrailak eta hauek irekitzeko txartelak, 3600€ko gastua ekarriko digu. Kutxatilen barruan dauden, eta bezeroak erabiliko dituzten xurgagailuak ere, 3960€ko inbertsioa egitea ekarriko digu. Hauek, behin bakarrik ordaindu beharko ditugu, beraz bakarrik lehenengo hilabetean, hau da, zerbitzua martxan ipintzerakoan ordaindu beharko ditugu

Bestalde, zabor-tasa, Interneta eta telefono tarifa, argia eta xurgagailuak edukiko dituzten plastikozko poltsak, kostu finko bezala edukiko ditugu zerbitzua hasten denetik, hilero ordaindu beharko ditugulako. Plastikozko poltsak, 25,99€ suposatuko digute hilabete batean; argiak berriz 50€; amaitzeko Internetak eta telefonoaren tarifak berriz, 18,12€.

Bankuari 10.000€ko mailegu bat eskatu behar dugunez, zerbitzua abiatzeko, bankuarekin adostutako epean, gure irabazietatik bankuari, aldez aurretik adostutako diru kopuru bat bueltatu beharko diogu, diru kopuru honi interesak gehitu behar diogu, hauek ere finkoak izango dira gaur egungo egoera ikusita. Horretaz gain, guk ere gure dirua jarriko dugu, 3.000€, eta maileguarekin batera 13.000€ edukiko ditugu proiektuarekin hasteko.

Amaitzeko, zerbitzu hau martxan ipini dugun pertsonok, bankuari mailegu guztia itzuli arte, hau da lehenengo urtean, ez dugu soldatarik izango. Lehenengo urtea igaro ostean, irabaziak zeintzuk diren ikusiz, kide bakoitzak zenbateko soldata jasoko duen adostuko dugu, soldata hau 4 kideetan kopuru berdina izango da.

LEHENENGO HILABETEA

Ordenagailua	350€	x2	700€
Kutxatilak	248'60€ (1 zutabe/4 kutxatila)	x18	4474,80€
Poltsak	1 pack = 600 poltsa (0,04 poltza bakoitza)	x1	25,99€
Xurgagailua	55€	x72	3960€
Zerradurak+Txartelak	50€	x72	3600€
Zabor-tasa	24,97€ (hiruhilabetea)	÷3	8,33
Interneta+Telefonia	18,12€	x1	18,12€
Argia	50€	x1	50€
Publizitatea	Irratian + aldizkarian	x	25,12€
Soldatak	0€	x4	0€
GUZTIRA			12862,36€

HURRENGO HILABETEETAN

Poltsak	1 pack = 600 poltsa (0,04 poltza bakoitza)	x648	25,99€
Zabor-tasa	24,97€ (hiruhilabetea)	÷3	8,33
Interneta+Telefonia	18,12€	x1	18,12€
Argia	50€	x1	50€
Soldatak	0€	x4	0€
GUZTIRA			102,44€